

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Alkatearen ordainsaria eta korporazioko kideen kalte ordainak

toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 123.1.n artikuluan xedatutakoa betez, udalbatzak, 2019ko uztailaren 12ko osoko bilkura berezian, hau erabaki zuen:

7/1985 Legearen 75.bis artikuluan eta 24/2018 LEDen 4. eta 8. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz eta Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Aretoaren 4. Atalaren 677/2019 epaia ikusita, alkatearen lanaldia ehuneko 50ekoa izango da eta ondorioz, 23.348,55 euro jasoko ditu. Zenbateko hori 2018ko abenduaren 31n indarrean zegoena baino ehuneko 2.25 gehiago da.

Horrez gain, sari hauek ezartzen dira:

Udalbatzetan parte hartzea: 50,00 euro.

Eta otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren hirugarren aldaketa onesten duen ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuak onetsitako zenbatekoak eta araudi horrek adierazitako baldintzak eta eguneratzek kontuan hartuta:

Mantenu saria: 42 euro.

Norbere ibilgailua erabiltzeagatiko kalte ordaina: 0,29 euro/Km. Gasteizera egindako bi-daiengatik, aurreko agintaldian ordaindutako bera ordainduko da; hain zuzen ere 38,86 euro.

Argitara ematen da guztiek jakin dezaten, bat etorriz 7/1985 Legeak 75.5. artikuluan xedatutakoarekin.

Lapuebla de Labarca, 2019ko uztailaren 17a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ